



Eskolapioen Kristau Alkartearen gizarte begirada

Oztopoak oztopo, bide egiten diharduan herria



Ijito herria, herri nomada izan da sorreratik; Indiatik atera eta herrialdez herrialde mugitu eta hedatu izan da, batik bat European. Bere DNAn datza eta harrotasunez aldarrikatzen dabe. Bidaia honeen eraginez, herri honek egundoko aniztasuna dau eta hainbat herrialdetan ditu sustraiak, bereziki sakonak batzuetan, esate baterako gurean, non alkarte erromaniak sei gizaldi daroazan finkatuta eta nahaste eta mestizajea guztiz nabarmena den kulturaren, hizkuntzaren eta artearen.

Halanda be, joan-etorri horren atzean, askotan, bereizkeria, arrotzat hartu izanaren mespretxua, jazarpenak, esklabotasuna eta genozidioa bera be ezkutatu izan dira.

Eta ez pentsatu bereizkeria hori iraganeko kontua danik, indarrean da gaur egun be. Oraindik, Espainiako Errege Akademiaren hiztegiaren, maltzur hitza agertzen

da ijito hitzaren sinonimo lez: "amarruez baliatzen den pertsona, maltzurkeria, faltsukeria eta guzurrez norbaiti konturen batean iruzur egiten saiatzen dena".

[#Yonosoytrapacero#Yonosoytrapacera](#)

Ijitoenganako aurkakotasuna, bereizkeria da eta, zoritxarrez, era batera edo bestera, guztiz hedatuta dago gizarteko hainbat arlotan, esate baterako, hezkuntzan, lanean, etxebizitzan, komunikabideetan, pertsonarteko hartu-emonetan...

HEZIKETA

Ijito etniako mutiko eta neskatuen artean gertatzen dan eskola-porrotaren datuak, kezkarriak dira: 10etik 6k Bigarren Hezkuntza amaitu baino lehen izten deutse ikasteari, biztanleria osoaren kasuan, 10etik 2k egiten dauan bitartean. Datu honek, azken batean, barneratzailea ez dan sistema islatzen deusku, ume honeentzat oztopo eta mehatxu argiak daukazana: bereizketa banandutako gela eta ikastetxeetan, aukera urriak aurrerretxien eraginez, ikasketak egin dituan erreferenterik ez familian...

Horrezaz gainera, ijito historia eta kultura ez da eskola-curriculumean jasoten. Espainian gitxiengo etnikorik jentetsuenetako izan (750.000 FSGren datuen arabera) eta sei gizaldiran kultur ekarpen esanguratsua egin badau be, testuliburuetan ez da erromani historia eta kulturaren inongo aitamenik egiten.



EL PUPITRE GITANO
Puede parecer un pupitre cualquiera pero su diseño es realmente incómodo.

DESIGUALDAD
Las irregularidades en la manera simbolizan el fracaso escolar y la desigualdad que afecta especialmente a las niñas gitanas.

RESPALDO IRREGULAR
Las tablas invertidas añaden a la falta de interés con estudios en el entorno familiar.

AI SLAMIENTO
La tapa no se levanta correctamente de la angostación que viven las niñas y niños gitanos que estudian en colegios separados.

SOPORTE INESTABLE
El asiento se inclina hacia atrás como resultado del efecto de estereotipos y prejuicios muy arraigados.

DESEQUILIBRIO
La pata que cojea refleja una discriminación de partida para el alumnado gitano y una escuela poco incluyente.

FALTA DE APOYO
Las tablas no son fijas. Representan una base de bajas expectativas sobre el alumnado gitano.

6 de cada 10 niñas y niños gitanos abandonan los estudios antes de terminar la Secundaria.
Por una educación incluyente. Conoce más en [ElPupitreGitano.org](#)

ETXEBIZITZA

Ijito-familien % 8,63 infraetxeetan bizi dira (% 2,17 txaboletan), FSGk 2015ean Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren enkarguz egindako txostenaren arabera. Kausen artean aipa daikeguz neurri ez-eraginkor batzuk, tipologia bereziko auzoak sortzera eroan dabenak, bereizketa erreproduziduten dabenak, ekipamentu eta baliabide egokirik bako auzoak. Horrek guztiak estereotipoak eta aurreiritziak bultzatzen eta elikatzen dauz, eta etxebizitza eskuratzea are gehiago zailtzen dauen arbuioa eta diskriminazioa sortzen dau. Hori dala eta, zirkulu korapilatsua da. Esate baterako, Euskadin 2022an egindako azterlan batean ondorioztatu zen inkestatutako pertsonen % 40k ez eutsala alogaduko ordezkoko pertsona bati.

*Ijito Ikasmahaia Euskaraz

LANA

Ijitoen artean, %52ko langabezia-tasa dago. Kopuru hori biztanleria osoari dagokion tasa baino hiru bider handiagoa da, FSGk 2019an egindako ikerketaren arabera. 2022an Bardintasun-ministerioak aginduta egindako ikerketan jasoten danez, galdeketa egin jaken ijitoen %30,1ak lanean bereizkeria jasan ebala adierazo eban. Azterlan berean jasotakoaren arabera, herritarren ustez, Espainian, laneko aukerei dagokienez bardintasun gitxien dabenak, ijitoak dira, %74aren ustez, ijitoek ez dabez gainerako herritarrek dabezan aukerak.

Lanean bereizkeria jasan leikiela-eta, estrategiak dabez lana aurkitzeko: argazkiak ezkutatu, ahoskera disimulatu edo ze etniakoak diran ezkutatu.

Desbardintasun honen eraginez, ijito familien %86a pobretasunaren mugaren azpitik dago eta familien erdia inguru (%46) pobretasun larrian bizi da, 310 euro azpiko sarrerakaz. (FSG 2018)



KOMUNIKABIDEAK ETA GIZARTE SAREAK

Gehiegitan, komunikabideetan agertzen dan ijitoen irudia ez dator bat oso anitza dan alkartearen errealidadeagaz. Irudi hori, estereotipoetan oinarritzen da eta estigmatizazioa dakarren aurreretiak errepikatzen ditu. Erromani Batasunaren “¿Periodistas contra el Racismo?” dalakoaren arabera, azken hamarkadan (2010-2019), ijitoak aitatzen dabezan barrien %16ak kazetari-praxi txartzat jo daitezke.

Praxi eskas honi azken urteetan sortu diran eta ijito herriaren gizarte irudiari inongo mesederik egiten ez deutsen “teleerrealidade” saioak gehitu behar jakoz, gizarteak herri horren inguruan dauan ikuspegia hondatu egiten daben estereotipoak sustatu baino ez dabezelako egiten.

Gainera, gizarte sareak aztertu ezker, gorrotozko diskurtsoak, gitxitu ez ezik, nabarmen gehitu dirala ikusi geinke. Europar Batasunak 2021ean, interneten agertzen diran era honetako diskurtsoen inguruan argitaratutako azterlanaren arabera, ijitoenganako aurkakotasuna dago Europako gorrotozko mezuen %12,5aren atzean.

Horregaitik, ez da harritzekoa, Arraza edo Etniagaitiko Bereizkeriaren Ezabatzerako Batzordearen ikerketan islatzen danez, gure herrialdeko ijitoen %89ak, gizarteak euren alkarteaz dauan irudia negatiboa dala eta irudi hori hainbat gitxiengok sustatutako eta komunikabideek zabalduetako aurreretiaren oinarritzen dala pentsatzea.

Oztopoak oztopo, ijito alkartea aurrera egiten ari da, bide egiten dihardu etorkizunerantz, sailkatu eta zapaldu egiten dabezan aurreretiaren aurka borrokatuz, baina zoritxarrez, gehiegitan gainerakoek baino gehiago erakutsi behar izaten dabe aurrera egiteko. Eta beti be, euren izaerari uko egin barik, izaera hori harrotasunez belaunaldiz belaunaldi transmitituz eta euren hizkuntza, ohitura eta kulturari eutsiz, “[Gelem, gelem](#)” (Ibili nintzen, ibili nintzen) ereserkian jasoten danez.

Sastipen thaj mestipen (Osasuna eta askatasuna)

Gehiago jakiteko:

- <https://www.gitanos.org/>
- <https://www.sensibilizacióngitanos.org/>
- [Historia del Pueblo Gitano en España](#)
- [Estudio Neurto 2022](#)
- https://unionromani.org/pueblo_es.htm
- [Estudio Percepción discriminación racial](#)

Ekintzarako proposamenak

- Ezagutu ijito herriaren historia eta kultura.
- Txabolismoa ezabatzeko kanpainagaz bat egin, eskaria sinatuz: <https://chabolista.es/la-fsg/>.
- Aztertu zure hartu-emonak. Badozu hartu-emonik ijitoen bategaz?
- [Neurtu](#) orrian agertzen diran galderei erantzun eta gaitzespenik egiten dozun aztertu.
- Ijito alkartearenganako gorrotozko edozein diskurtso gaitzetsi eta GGSSetan agertzen diran holako diskurtsoak salatu.